

DANBOLIN MUSIKA ESKOLA 2020-21 IKASTURTEKO MATRIKULA-ARAUAK

1. ARAUA:

Ordaindu beharreko kuota guztiak ordainduta edukitzea.

2. ARAUA:

Epez kanpora ez dago matrikula egiterik.

3. ARAUA:

Ikasle ofizialek zein berriek ekainean edo irailean matrikulatzeko aukera izango dute.

4. ARAUA:

Ikasle bat ondo matrikulatua gelditzeko: Matrikula orria eta argazki baimena ondo beteta eta sinatuta ekarri behar ditu.

5. ARAUA:

Kurtso berdineko bi talde daudenean, talde batean edo bestean sartzeko irizpideak:

- Ikasleak musika eskolan ez badu jarraitu nahi, jakinarazi egin behar du.
- Bi talde aurreikusten diren kurtsoetako ikasleei, ordutegi posibleak adierazten zaizkion ohar bat bidaliko zaie maiatza bukaeran.
- Ohar hau, ikasleak egiten duen aukeraketarekin, epe baten barruan entregatu beharko du musika eskolan (oharra ez badu erantzuten, zuzendaritzak erabakiko du zein taldean sartu, taldea konpentsatzeko).
- Ikasleek egiten duten aukeraketa honen arabera, taldeak konpentsatuta edo konpentsatu gabe atera daitezke, beraz:
 1. Taldeak konpentsatuta ateratzen badira, horrela utziko dira.
 2. Taldeak konpentsatu gabe ateratzen badira:
 - * Gurasoekin bilera egingo da eta taldeak konpentsatzen saiatuko dira. Ikasle baten gurasoak, bilerara ez badira etortzen eta ez badute justifikatzen edo abisatzen bilera baino lehen, ikasle hori, taldea konpentsatzeko erabiliko da.
 - * Ikaslearen expediente zenbakia kontutan hartuta, zozketa egingo da. Expediente zenbakia, matrikula orrian azaltzen den ikaslearen zenbakia da.
 - * Zozketa honen ondorioz eta ahal den neurrian, ikasleak egin duen aukeraketaren arabera, taldeak osatuz joango dira.
- Behin behineko talde zerrendak, ekainaren 2. astean, musika eskolan jarriko dira.
- Behin behineko talde zerrendatik, norbaitek taldez aldatu nahi badu: ikasleak berak beste taldeko ikasle batekin adostu beharko du aldaketa egitea eta musika eskolan jakinaraziko du, aste bateko epearen barruan.
- Behin betiko talde zerrendak, matrikulazioa hasi baino bi egun lehenago, musika eskolan jarriko dira. Matrikulazioaren epe barruan, matrikula egin beharko dute beti bezala, onartuak izateko.

6. ARAUA:

Matrikulazioaren arabera, zuzendaritzari dagokio, tailerra, musika mintzaira eta dantzako ordutegiak mantendu edo aldatzea.

7. ARAUA:

2. mailan instrumentuko matrikulazioa mugatua izango da, plaza kopurua, ikasle kopuruaren arabera izango da. Tailerra 3. kurtsoa gainditu duten ikasle ofizialek izango dute preferentzia, baina plazak banatzeko ikasle gehiegi badago, ondorengo baldintzak kontutan hartuko dira:

1. Gainditutako tailerreko ikasturte kopurua.
2. Orion erroldaturik dauden ikasleek lehentasuna izango dute.

Baldintza berdinetan dauden ikasle kopurua, plaza kopurua baino handiagoa bada, zozketa egingo da. Zozketan, instrumentua tokatu ez zaion ikasleak, erreserba orrian jarritako hurrengo instrumentua aukeratu beharko du.

Salbuespena:

2. mailan, ikasle berri bat edozein instrumentuetan matrikulatu daiteke, nahiz eta plazarik ez egon, ondorengo kasuetan:

1. Beste herri batetik Oriora bizitzera baldin badator eta bere ikasketa musikalak hasiak baditu. Beharrezko dokumentazioa; Orioko errolda ziurtagiria eta ikasi duen musika eskolaren ziurtagiria.

2. Ikaslearen mediku txostenak horrela gomendatzen badu. Beharrezko dokumentazioa; mediku txostena.

8. ARAUA:

1. mailan izena ematen duten ikasle berriek, ikasturtea hasi ondoren, 15 egun dituzte probatzeko. Arazoren bat sortuz gero, baxa ematen badu, egindako ingresoa itzuliko zaio.

9. ARAUA:

Ikasle batek ikasturtea hasi ondoren baxa ematen badu, matrikularen dirua ez zaio itzuliko eta osoa kobratuko zaio.

10. ARAUA:

Matrikula gutxitzea nahi duenak matrikula egiteko epean eskatu behar du, eskaera orria ondo bete behar duelarik. Handik kanpora egindako eskaerarik ez da onartuko.

11. ARAUA:

Matrikula gutxitzea, hau da, erredukzioa onartzen zaion ikasleak, ikasturtea ondo gainditu beharko du. Horrela ez bada, eta hurrengo ikasturtean berriro eskatuko balu erredukzioa, ez litzaioke emango.

12. ARAUA:

Matrikula egiteko orduan gertatzen den eta arau hauetan hala nola barne araudian jasota ez dagoen edozein okerri buruzko erabakia hartzea Zuzendaritzari dagokio.

**DANBOLIN MUSIKA ESKOLA
2020-21 IKASTURTEKO ARAUAK**

1. ARAUA:

Instrumentuko ordua ikasturte bakoitzeko egutegian adierazten den egunean jarriko da eta ondorengo irizpideak jarraituko dira:

1. Ordu-tegiak jarriko diren egunean, goizeko 12:00etan, zozketa bidez zenbaki bat aterako da, ikasleen espediente zenbaki guztien artean.
2. Arratsaldeko 18:00etan, instrumentu bakoitzeko irakasleak, bere ikasleekin egingo du bilera ordu-tegiak jartzeko. Zozketan atera den espediente zenbakitik aurrera, jarraituko da ordena, ordu-tegiak aukeratzeko.
3. Lehendabizi 2. mailako ikasleek aukeratuko dute eta gero 3. mailakoek.
4. Ikasle batek, bilera horretara ezin badu etorri eta bilera baino lehen, irakaslearekin bere ordu-tegi posibleak adostu baditu (telefonoz, e-mailez...), bileran txanda tokatzen zaionean, ordu-tegi hori kontutan hartuko zaio (libre badago emango zaio eta bestela ez).

2. ARAUA:

Musika eskolan, maila bakoitzeko diploma lortzeko, gainditu beharrekoa:

1. MAILA:

- Tailerreko 3. kurtsoa gainditu behar da.

2. MAILA:

- Musika mintzairako 4. kurtsoa gainditu behar da.
- Instrumentuko 4. kurtsoa gainditu behar da.
- 2. mailan dagokion instrumentuko taldeko partaidea izatea, ikasleak taldeko partaidea izateko maila duenetik. Maila honetan dagokion instrumentuko talderik ez badago, beste edozein taldeko partaidea izango da, bi ikasturteetan.

3. MAILA:

- Instrumentuko 5. kurtsoa gainditu behar da.
- 3. mailan dagokion instrumentuko taldeko partaidea izatea. Maila honetan dagokion instrumentuko taldea ez badago, beste edozein taldeko partaidea izango da, bi ikasturteetan.

OHARRA, ASISTENTZIA:

- Maila bakoitza gainditzeko, dauden ikasgaien asistentzia minimoa % 90koa izan behar du.

3. ARAUA:

Tresna ikasketetako ikasleak ez dauka instrumentua erosi beharrik gomendagarria bada ere, musika eskolako bat alokatu dezake. Hori bai, lehenengoa lehenengo ikasturteko ikasleak izango du.

4. ARAUA:

Musika eskolako talde batean parte hartu nahi duen ikasleak, doan izango du baldin eta beste gairen batean matrikulatua badago. Matrikulatua ez dagoen ikasleak, ikasturteari dagokion matrikula ordaindu beharko du.

5. ARAUA:

Ikasteko gogo gutxi eta falta asko egiten duen ikasleak ez du hurrengo urterako tokirik gordetzeko eskubiderik izango, eta ez da, orobat, ikasle ofizial izango.

6. ARAUA:

Klasea bukatu eta ikaslea musika eskolako gelatik irten ondoren, gurasoen ardura izango da.

